

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroan 28 pertsona hil ziren 2011n izandako trafiko-istripuetan

Kopuru hori iazkoa baino % 28 txikiagoa da

Martes, 03 de enero de 2012

Nafarroan 28 pertsona hil ziren 2011n izandako trafiko-istripuetan, Nafarroako Gobernuak egindako balantzearen arabera. Kopuru hori % 28 txikiagoa da, 2010 ean izandako heriotza-kopuruarekin alderatuz; urte hartan 39 izan ziren.

Abenduan 4 pertsona hil ziren Foru Erkidegoko herri barruko bideetan eta hiriarteko bideetan izandako istripuetan.

Kopuru horren barnean abenduaren 28an hil zen ziklista bat dago, autopsiaren emaitzak jakiteko zain.

2011ko abenduan 337 trafiko-istripu izan ziren, haietatik 300 hiriarteko bideetan eta 37 herri barrukoetan eta, istripu horien ondorioz, 4 pertsona hiltzeaz gain, 5 zauritu larri eta 20 arin izan ziren.

2010eko abenduarekin alderatuz, Nafarroan gertatutako trafiko-istripuen kopurua % 9 igo zen, aldi horretan 306 istripu izan baitziren (271 hiriarteko bideetan eta 34 herri barrukoetan). Hildakoen kopurua bikoiztu egin zen (2010ean, 2 eta 2011n, 4), eta larri zauritutakoak, berriz, 10 izan ziren 2010ean eta 5, 2011n.



Foruzaingoa Nafarroako errepide batean izandako trafiko-istripu batean laguntza ematen.